

Orakunde

Iñauteri garaia mugimendu haundiko garaia eta aspalditik datorrena. Gaur Orakunde egunez mintzatuko gara, haurren eguna Iñaute aitzineko ortzeguenean ospatzen dena. Orakunde egunak irauten du Baztan guztian nahiz eta gure haur denboratik aldakuntza haundiak egin dituan. Duela 70 urte besta hau horrela egiten zan:

Orakunde aitzinenan Eskolako mutilak biltzen ginen Maixtrua-kin besta antolatu beharrez eta izendatzen gintuen «puske Biltzaleak»: Arroltze biltzaleak, Txistorra biltzea, Ogia, Nararijak, sosa eta etxetan ematen zuten «puskak» eta oiekin egiten zen bazkaria. Neskatiakoak ez ziren sartzen lan hoietan ezta ere bazkarian, Neskatiakoak atsaldako dantzaldian sartzen ziren eta baitere txokolatea izaten zuten. Mutikoak bazkari hau izaten ginuen: Arroza, Tortilla, Txistorra, Ogi eta ardoa Postretako Naranja bana. Eta erran dudana bezala neskatiakoak ez zuten bazkarian parte hartzen. Gero atsalde erditsuan izaten zen Ollar Yokoa plazan. Bi mutikoTaldea izaten ziran yoko hortan parte hartzen zutenak. Plaza buruan goratzen zuten harlosa bat eta han ziloa eginez ollarra sartzen zuten han barnean eta lurrez estali, ollarraren burua bakarrik agertzen zizaiola.

Plazako bertze muturrean, bertze mutiko pilla, hauek ere zurezko ezpata eskuetan zaukatela eta begiak ere ohial batekin estaliak. Maistruaren esku-zarta batekin abiatuko ziren mutiko guztiak ollarraren burua ukitu beharrez, itsu-itsuan deus ikusi gabe eta



ezpatakin burua ukitzen zuena izanzen zen irabazle ollarra bereganatuz. Bi mutiko Taldeak gauza bera egingo zuten. Ollarra arrapatzen zuena izanzen zen «dambolin nausi». Ondotik beste yosteta bat.

Neskatiakoak ekartzen zituzten «zintak» eta han paratzen zituzten dilindan eta mutikoak zurezko ziri bat eskuetan zaukatela zinta hori arrapatu beharrez. Mutikoak erregalatzen zion «Zinta» hori neskatiakoari eta hunek parazen zuen bere soinuaren eta holaxe Soka-dantza mutiko eta neskatiakoak herriari itzulia egingo zioten eta gero plazan «jota» eta ariñ-ariñ dantzatzuz illunabarra arte Orakunde Egunari ospa haundia emanik.

M. Izeta

Uztarrotze'n euskararen berri onak

Uztarrotze erria Erronkari'ko ibarran daukagu. 372 biztanle ditu. Iruña'tik euntalau kilometro dauka. Laza (1.129 m) delako mendatetik sartu giñan. Elurra mara mara ari zen. Arranoen kabia zeritzaigun; eliza tontor batean eta etxeak inguruan aldapa bera ibairatzen eratutak. Itsasoko mailatik 870 metro goruntz ezarria datza.

Emen egiten zen euskara berexi berexia. Bertako euskararen eredu bezala bi itz azalduko ditugu: uskara (euskara), Uruña(Iruña). Azkeneko «uskalduna», Fidela Bernal zen; 1898'garren urtean jaioa, larogei ta ameka urtekin illa, 1991'garren urtean. Koldo Artolak, emakume onekin Uztarrotze'ko azken euskara jaso zuen. Fidela Bernal'ekin joan zitzaigun Erronkari'ko ats ederra.

Erronkari'n bizi den euskaltzale baten billa nenbillela, Euskara Idazkaritzan Iruña'ko Jaurilaritzaren babesean bide baten billa ate joka asi nintzen. Izen bat aipatu zidaten: Josu Alastuei Ederra, Uztarrotze'tarra. Lanean arkitu nuen, mutil sendoa, langillea eta euskaltzale amorratua.

Lasai solasaldi luzea egin genuen. Ara emen etekiña. Fidela Bernal Uztarrotze'tar azken «Uskalduna», Josu Alastuei gaztearen amona zen. Ortik datorkio euskararn usaia. Josu Alastuei «Xaro» etxean jaioa da, 1959'garren urtean.

Gizon gazte onek, erriaren etorkizunari buruz aurrera begiratzen dabil. Bertze lagun batekin, orain dela iru urte gasnategi eder bat iriki du Uztarrotze'n, bide ondoan. Iru langilleentzat lantokia dago. Ardi esnea al duten tokitan erosita, ogei milla kilo gasna, guztiz onak egiten dituzte urtero. EKIA izena eman dio gasnategiari. Urrats ona Erronkari'ko giroa indartzeko.

Alastuei gazteak maite du benetan euskara; Iruña'n ikasi zuen gaueskolan. Bertze gaztekin ba-



Uztarroz.

tean, Uztarrotze'n euskara lagun-tzen alegindu da. Ortarako, euskal sua pixteko, Otsagi'ko dantza bikotea ekarri dute, baita Xibero'ko abesti taldea. Orain dela bi urte, euskaraz gaueskola eman zuen bertan Isaba'tar Josu Arilla'k; amar ikasle etorri zitzaizkion. Uztarrotze'n ba daude borts neska-mutil, euskaraz mintzatzen ongi ikasi dutenak; Belen Marko, or dago Iruña'n ikastolan andereño bezala lanean.

Uztarrotze'n giroa aldatu bearra zegoen. Len eskolako irakasleak, Erribera'tarrak ziren eta etzekiten euskaraz. Gaiñera etsai gogorrak zituzten bertan. Aberatsak, alkatea,

idazkaria, maixua, apeza izaten ziren gogorrenak. Aberatsak indar aundia zeukaten. Oyen nagusitza urrutiraño zabaltzen zen; bertan artaldeak, abereak, mendiak, etxeak, urrutin berriz lurralde zabalak eta etxeak Erribera, Bardeak eta Aragoi'ko Bortz lrietan.

Orain berri ona datorkigu; aurtengo ikastaroan euskarazko gaueskola asi dute berriz, amazapi ikaslekin, irakaslea Beatriz Garzes andereñoa, Isaba'tarra. Bi talde (9 eta 8) egin ditu; ikastaroak lau aldiz astean dituzte.

Gazteak, Uztarrotze'n, euskararen alde daude.

Latxaga

Berri ona

Gogoan izan etsaiak

«Maite itzazue zuen etsaiak» (Lk. 6, 27-38)

ILLUAK eguneroko ogi biurtu zaizkigu. Istilluarekin elkar-bizitza egiten oituenak gela erranen nuke. Gizarteko arremanak erabat korapillotsuak biurtu dira.

«Pertsona bakoitzak barruan nabari duen batasun ezak eta egokitasun ezak sortzen du gure barruko istillua», aitortu du Setien Gotzaiak orain urte batzuk. Beraz, kanpotik bakarrik ez datozkigu istilluak, geure barnean ere, beraz, sor daitezke istilluak.

Istilluak, zoritzarrez, bide okerrak artu ditu gure artean. Gure errian bizi dugun egoera larri eta istillutsuak elkar gorrotatzeraio eraman gaitu. Eta istillua gorroto bide gertatzen danean, elkarri zor dizkiogun begirunea eta bizi suntsitzeraio iirisi gindezke.

Gure barrua lasai ez edukitzeak, geure buruarekin pakean ez bizitzeak edota geran bezala ez onartzeak sortzen du gure barneko istillua. Urkoa ez errespetatzea, txikia ez onartzea eta beti bestearen inbiditan bizitzeak sortzen du kanpoko istillua.

Eta bizitza orrela bizitzeak, lentxeago edo geroxeago indarkeria sortzen du. Indarkeriatik dator gorrotoa eta gorrototik gure ondamedia. Eta egoera orrek konponbiderik ez du izango elkarren ideak eta asmoak errespetatzen ez ditugun bitartean.

Ala ta guztiz ere izango dira gure kontra altxako direnak, guregatik gaizki mintzatuko direnak, onartuko ez gaituztenak. Eta Jesusek erraten digu: «maite itzazue zuen etsaiak».

Ez da asuntua egia eta izatea geure neurriara jartzea. Ez ditugu gauzak eta ekintzak geure neurriara eta gogora antolatu bear. Ez. Orrela ez dugu iñoiz pakerik izango eta iñoiz gure urkoa ez dugu ezagutuko. Anaiak ez dira gure anai izango.

Egian sinisten duenak bakarrik onartuko ditu beste guztiak pertsona moduan. Egian sinisten duenak egin dezake on, eta otoitz, eta bedeinkatu. Egia maite duenak ez du pertsonarik erasotuko. Egia maite duenak bakarrik gairiditu dezake gorrotoaren gaillurra.

Oso gutxitan gogoratzen gera gure arerio edo etsaien alde otoitz egitea. Oso gutxitan ekartzen ditugu gogora gure kontra daudenen premiak eta bearak. Aien alde otoitz egiteko agintzen digu Jesusek.

Zein zailla den besteei begi onez begiratzea! Alderantziz, zein erreza den urkoa zapaltzea eta baztertzea!

Egia, barkamena... gure gizartetik kendu ditugun itzak eta ekintzak. Jesusen jarraitzaile geranok, ordea, berreskuratu bear ditugu. Munduak, gizarteak luzaroan ezin dute etsaiak gorrotatzuz luzaroan jarrai. Ez da bidezkoa.

Ebanjelioa ez dago zatika bizitzerik. Orregatik etsaien aldeko otoitza eskatzen zaigu gaurkoan. Eta etsaierik ez izateko elkarriketa landu bear da, eta, ondoren barkatu.

Artzalluz'tar Joxemari

Europar Europa'ko Europatarrik Europatarrenak, ¡euskaldunak!

Badakit, ori entzutean zuek ez zeratela asarretuko. Baño ori beste batzuei kontatzen ba'diezute, ba-leike oitakoren bat zeukin asarretzea.

Esai'ozute orrelako gizatxar ori, guk ortan errurik ez dugula, baña oroi egia dela. Ori orrela izateak ez duela gu beste europarrak beño obeak, azkarragoak, idartsuagoak, edo ederragoak geranik esan nai. Baña, ori, orrela dela: Gu, euskaldunok, Europa'ko europatarrik europatarrenak gela. Ori jakiteak ez gaitula batere arrotzen, baña, poza bai; poz aundia ematen digula. Eta ori, orain berrira entzun izateak ez gaitula batere arrot; ori leendik ere bagiñakigun gauza zalako.

Pozik emango dizuete guzti orren arrazoiak, eta zuk ere, Patxi, nai beste edozein gizon argi bezin argia izen, eskolara joaterik izen ez zenuen adiskide maite orrek ulertu dezaidazu, azalpen bat eman nai nuke, beste ororen aurretik:

- Gizadiaren istori edo edeskian, oraingo gizakume-mota onen aurretik iru gizakume-mota ezberdin bizitu ziren: «Txelentxetarrak», «Neandertarrak» eta «Kromañondarrak». Azkeneko auek, emen omen zeuden Krist'aurreko 30'garren urterako. Neandertarrari «homo sapiens», ots, «gizon jakintsu» esan oi zaio. Kromañondarrari, «homo sapiens sapiens», «gizon jakintsu jakintsua».

Kromañondarrak izan ziren

gure leizeetan artz, zezen, zaldi eta gañerako abere arrigarri aiek margoztu edo pintatu zituztenak.

- Kromañondarren aztarnik ugarrienak eta ederrenak, askoz ederrenak, Dordoña ibaia eta Asturietao mendien bitarteko lur ontan daude: orduan seguruaski Euskalerrria zen lurraldean, eta, emen, euskaldunon arbasoen lurrean egon zen antziñate artan mundu guztiko kulturarik aundiena. ¡Ez gela euskaldunok alu tonto ezerez batzuen semeak!

Zergatik ausartu naizen Dordoña ta Asturiaren arteko lurralde ari Euskalerri esatera? Lurralde ori gaur oraindik euskerazko «toponimi» edo «toki-izenez» aski baterik agertzen zaigulako, eta, orren ondorioz, lurralde artako kromañondarrek euskeraz itzegiten zutela uste dutalako.

Bai. Badakit modan jarri dela orain emengo jakintsu berri batzuen artean, Euskalerrria eta Euskalerrriari dagokion guztia beeratzea eta garrantzirik gabekotzat agertzea. Badakit, Euskara Krist'aurreko 3.000'garren urtearen inguruan sortutako izkera dela esaten ari zaizkigula.

Baño ez nator ni jakintsu oiekin bat. Izan ere Krist'aurreko 3.000'garren urtea, «neolitik» edo «arriberriaren arokoa» da. Euskara, ordea, bere iztegiak berak erakusten digunez «Paleolitik» arokoa, ots «arriararen arokoa». Askoz

eta askoz zaarragoa.

Poztu nintzen Don Joxemigil Barandiaran jakintsu aundia ere iritzi ortakoa zela ikusi nuenean. Oso zarra zen Don Joxemigil, Joxe Karrera indurstrigizon euskaltzalearekin Ataun'era joan nintzaionean: «Don Joxemigil: Gure leizetako abereak margoztu zituzten kromañondar aiek euskaldunak al ziran?, galdetu nion. Eta berak erantzun: Bai; euskaldunak ziran. Guk ez genien ulertuko; bañan euskeraz ari zirala oartuko giñan».

Ba, euskaldunok, kromañondar aiengandik zuzen-zuzenean gaitozten gizakumeak gera. Ori esaten aurrenekoak, 1.920'aren inguruan talde bat osotzen zuten Arantzadi, Barandiaran bera eta Eguren izen ziren. Gero askok eta askok esan dute orixe bera. Azkenik, Iparramerika'ko Princeton Unibersitateko «gizaizti» edo «antropologi»-irakasleek, arazo auetan jakintsurik onena ta ezagutuena omen den Cavalli Sforza prinzetondarra buruzagi dutela.

Beraz, Euskaldunok, kromañondarrendigandik gatzoz zuzenean belaunaldiz- belaunaldi. Orregatik, Europa'ko enda edo kastarik zarrena gera. Eta orren ondorioz, Europa'ko europatarrik europatarrenak. Ema'izkiogun ba, bata besteari, zorianik beroenak.

Latiegi'tar Bixente